

Ante el tiroteo contra el baserri de Amurrio

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA :: 08/01/2019

El pasado domingo, día 6, un ex miembro de la Policía Española tiroteó en Amurrio el baserri de una familia de la izquierda abertzale.

Amurrioko baserriaren aurkako tiroketaren aurrean

Pasa den igandean, hilak 6, ezker abertzaleko familia baten baserria tirokatu zuen Espainiako Poliziako kide ohi batek Amurrian. Honen aurrean, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak honakoa adierazi nahi du:

Agiri honen lehenengo hitzak tirokatutako familiako kideentzat dira: gure elkartasun osoa eta gure babesak adierazi nahi dizuegu. Gaur egun izan ditzakegun desberdintasun ideologikoak gainetik, azpimarratu beharra dugu zuen etxea tirokatu duenarengan eta, oro har, Euskal Herriaren aurka aritzen direnengan, zuek bezala guk ere, etsai amankomuna aurkitzen dugula. Jaso ezazue gure besarkadarik zintzoena une zail hauetan.

Gertatutakoaren inguruko irakurketa politikoari dagokionez, argi eta garbi esan behar dugu ez dugula inolaz ere onartuko burua galdu duen ero bat izan daitekeela dioen bertsioa. Gertaera honek arduradun politikoak ditu, hain zuzen ere ezker abertzalearen aurka hamarkadak zaborra botatzen dabiltzan politikari profesionalak, enpresari handien komunikabideak eta diru publikoz lagundutako erakunde faxista ezberdinak.

Batzuek hamarkadak daramatzate independentista, ezkertiar, antikapitalista, feminista, antifaxista edota euskaldun usaina duen ororen aurkako gorrotoa hedatzen, mugimendu hauen aurka dena zilegi dela jendartean iltzatu nahian. Hamarkadak daramatzate bitarteko guztiak erabiltzen gu garenari, gure herriari, gure kulturari, Euskal Langile Herriari eraso egiteko. Hamarkadak Espainiako eta Frantziako Estatu terroristen gerra zikina, erailketak, bahiketak eta torturak justifikatzen, eta Amurrioko baserriaren tiroketa zabor honen guztiaren ondorioetako beste bat baino ez da.

Orain dela hilabete eskas, titular guztiak ematen zuten Gasteizko campusean AEDE izeneko talde ultraeskundarraren kide baten aurkako erasoaren berri, eta ordezkapen instituzionala daukaten alderdi guztiak arbuiatu zuten aipatutako ekintza. Guk, ordea, argi daukagu AEDE bezalako erakundeek, beste batzuen artean, salatzen ari garen tiroketa hau bezalakoak egon daitezen klima aproposa sortzeko betekizuna dutela. Hausnarketa moduan, zalantzarak ez daukagu faxismoaren aurrean bi aukera baino ez direla existitzen: haien ala gu.

Baten batek errepiatuko du buruz ikasitako abestia, jarrera honek faxisten parean jartzen gaituela alegia. Abesti horrek, baina, faxismoa zuritzeko nahia besterik ez du erakusten. Modu arrazional batean ezinezkoa da arrazismoa, matxismoa, langileen esplotazioa, Ama Lurraren ustiapena, herrien okupazio militarra, homofobia eta transfobia, eta pobreen aurkako gorrotoa zabaltzen dutenak, hain zuzen ere hau guztia bultzatzen dutenen aurka dihardutenekin parekatzea. Hau da, ezin dira inolaz ere parekatu faxistak eta antifaxistak, eta zalantza izpirik gabe baiezatzen dugu bi jarrera hauen arteko distantziakidetasunean

mantentzen direnak faxistei ari zaizkiela mesede egiten.

Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua azpimarratu nahi du borrokarako garaia izaten jarraitzen duela, soilik bide horretatik lortuko dugulako faxismoaren atzparrei ihes egitea eta gure herria zein gure klasaren askatasuna eskuratzea.

Euskal Herria, 2019ko urtarrilaren 8a.

Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.

Ante el tiroteo contra el baserri de Amurrio

El pasado domingo, día 6, un ex miembro de la Policía Española tiroteó en Amurrio el baserri de una familia de la izquierda abertzale. Ante esto, el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere expresar lo siguiente:

Las primeras palabras de este comunicado son para los miembros de la familia: queremos expresaros toda nuestra solidaridad y nuestro apoyo. Por encima de las diferencias ideológicas que podamos tener hoy en día, debemos subrayar que al igual que vosotrxs, también nosotrxs encontramos un enemigo común en quien ha tiroteado vuestra casa y, en general, en quienes actúan contra Euskal Herria. Recibid nuestro más sincero abrazo en estos difíciles momentos.

En lo que respecta a la lectura política sobre lo sucedido, queremos decir con rotundidad que no aceptaremos de ninguna manera la versión de que ha podido ser algún loco que ha perdido la cabeza. Este hecho tiene responsables políticos, que son precisamente los políticos profesionales, los medios de comunicación de los grandes empresarios y las distintas organizaciones fascistas financiadas con dinero público, que llevan décadas echando basura contra la izquierda abertzale.

Algunos llevan décadas extendiendo el odio contra todo lo que huele a independentista, a izquierda, a anicalista, a feminista, a antifascista o a euskaldun, queriendo afianzar en la sociedad que contra estos movimientos todo es legítimo. Llevan décadas utilizando todos los medios para atacar a lo que somos, a nuestro pueblo, a nuestra cultura, al Pueblo Trabajador Vasco. Décadas justificando la guerra sucia, los asesinatos, los secuestros y las torturas de los Estados terroristas Español y Francés. Y el tiroteo del baserri de Amurrio no es más que otra de las consecuencias de toda esta basura.

Hace escasamente un mes, todos los titulares daban la noticia del ataque en el campus de Gasteiz contra un miembro del grupo ultraderechista AEDE, y todos los partidos con representación institucional condenaron dicha acción. Nosotrxs, en cambio, tenemos claro que organizaciones como AEDE, entre otras, tienen el cometido de crear el clima adecuado para que se produzcan tiroteos como el que estamos denunciando. Como reflexión, no tenemos ninguna duda de que ante el fascismo solo existen dos posibilidades: ellxs o nosotrxs.

Habrá quien repita esa canción aprendida de memoria, esa que dice que esto nos pone a la par de los fascistas. Pero esa canción solo demuestra un deseo por lavar la cara al fascismo. Es imposible, de manera racional, comparar a quienes impulsan el racismo, el machismo, la explotación de lxs trabajadorxs, el expolio de la Madre Tierra, la ocupación militar de los pueblos, la homofobia y la transfobia, y el odio hacia los pobres, con quienes actúan precisamente contra lxs que impulsan todo esto. Es decir, que de ninguna manera se puede comparar a fascistas con antifascistas, y afirmamos que, sin duda, quienes se mantienen en una equidistancia entre estas dos posturas están favoreciendo al fascismo.

El Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere destacar que sigue siendo tiempo de lucha, porque solo por ese camino conseguiremos huir de las garras del fascismo y hacernos con la libertad de nuestro pueblo y de nuestra clase.

En Euskal Herria, a 8 de enero de 2019.

Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.

<https://eh.lahaine.org/ante-el-tiroteo-contra-el>